

ETXEKO ETA GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO, SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEN JOKABIDE ETA ORGANO JUDIZIALEKIKO KOORDINAZIO PROTOKOLOA

(Polizia Judizialaren Koordinazio Batzorde
Nazionalaren Batzorde Teknikoak onartua
2005eko ekainaren 28an, aurreko Protokoloa
Genero Indarkeriaren kontrako Babes-Neurri
Integraleko 1/2004 LO-aren aldaketetara
moldatu ostean)



BOTERE JUDIZIALEKO
KONTSEILU OROKORRA



BARNE-ARAZOETARAKO
MINISTERIOA



JUSTIZIA MINISTERIOA




ESTATUKO FISKALTZA OROKORRA



LAN ETA GIZARTE GAIETARAKO
MINISTERIOA



ABOKATUTZAKO
KONTSEILU OROKORRA



PROKURADOREEN
KONTSEILU OROKORRA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



GOBIERNO DE CANARIAS



JUNTA DE ANDALUCÍA



COMUNIDAD DE MADRID



NAFARROAKO GOBERNUA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
I. ETXEKO ETA GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEN JOKABIDEA.....	5
I.A.- IKERKETA POLIZIALAREN FASEAN IZAN BEHARREKO JOKABIDEA.....	5
I.B.- SALAKETA JASOTZEA ETA ATESTATUA EGITEA.....	7
I.C.- BABES EDO BERMERAKO NEURRI JUDIZIALEN KONTROL ETA SEGIMENDUAN IZAN BEHARREKO JOKABIDEA.....	8
II. URRUNTZE NEURRIEN BETETZE ERAGINKORRA.....	9
II.A.- URRUNTZE NEURRIAREN ESPAZIO ETA DENBORA EREMUA.....	10
II.B.- SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEK ERANTZULEA ATXILOTZEA.....	10
II.C.- AGERRALDIA, URRUNTZEA EZ BETETZEAGATIK.....	10
II.D.- BEHIN-BEHINEKO PRESOALDIAREN BALIZKO APLIKAZIOA EDOTA BIKTIMA BABESTEKO BESTELAKO NEURRIAK HARTZEA.....	11
III. ORGANO JUDIZIALEN ETA SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAK	12
III.A.- ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO ERREGISTRO ZENTRALAREN FUNTZIONAMENDUA HOBETZEA.....	12
III.B.- ORGANO JUDIZIALEN ETA SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEN ARTEKO KONEKIO TELEMATIKOA.....	12
III.C.- SEGURTASUN INDAR ETA GORPUZEK ORGANO JUDIZIALEI IGORRITAKO KOMUNIKAZIOAK.....	13
III.D.-ORGANO JUDIZIALEK SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEI IGORRITAKO KOMUNIKAZIOAK	15
<i>1.- Epailearen erabakiak.....</i>	<i>15</i>
<i>2.- Txostenak.....</i>	<i>16</i>
<i>3.- Beste aurrekari batzuk.....</i>	<i>16</i>
<i>4.- Beste komunikazio batzuk.....</i>	<i>17</i>
<i>5.- Komunikazioen hartzailea.....</i>	<i>17</i>

IV. MINISTERIO FISKALAREN JOKABIDEA.....	17
V. DATU ESTADISTIKOEN KOMUNIKAZIOA.....	18
VI. ESPARRU AUTONOMIKOKO JOKABIDE PROTOKOLOAK.....	19
I. ERANSKINA: ATESTAUAREN GUTXIENeko EDUKIA.....	20
1.-BIKTIMAREN ADIERAZPENA.....	20
2.-BIKTIMAREN ETA BERE ERASOTZAILEAREN DATUAK	21
3.-FAMILIA TALDEAREN DATUAK.....	22
4.-BIZILEKUAREN ETA ONDAREEN DATUAK	22
5.-GERTAKARIAK.....	23
6.-BABES ETA SEGURTASUN NEURRIEN ESKARIA.....	23
7.-SALATUAREN AGERRALDIA ETA ADIERAZPENA.....	24
8.-LEKUKOEN ADIERAZPENAK.....	24
9.-BIKTIMARI EMANDAKO LAGUNTZAN PARTE HARTU DUTEN AGENTE POLIZIALEN DEKLARAZIOA.....	24
10.-SALAKETAREN EGIAZTAPEN ETA BAIEZTAPENERAKO EGINBIDE POLIZIALAK.....	25
11.-ATXILOKETA EGINBIDEA ETA ESKUBIDEEN INFORMAZIOA.....	25
12.-ARMAK KONFISKATZEKO EGINBIDEA	26
13.-USTEZKO ERASOTZAILEARI BURUZKO AURREKARIAK AURKEZTEKO EGINBIDEAK.....	26
14.-TOXTEN MEDIKUA IGORTZEKO EGINBIDEA.....	26
15.-BIKTIMAREN BABESERAKO HARTUTAKO KAUTELA-NEURRIEN EGINBIDEA.....	27
16.-ARRISKUAREN EBALUAZIORAKO EGINBIDEA.....	27
17.-ATESTATUA IGORTZEKO EGINBIDEA.....	27
18.-ERANSTEN DIREN AGIRIAK.....	27
II. ERANSKINA: ALDERDI OSAGARRIEN ARAUDIA.....	28

SARRERA.-

Abenduaren 28ko Genero Indarkeriaren kontrako Babes-Neurri Integraleko 1/2004 Lege Organikoak, Segurtasun Indar eta Gorputzei zuzenduriko bere 31. artikulua 3. atalean ondokoa aurreikusten du: euron jokabideak kontuan izan beharko duela *Etxeko eta Genero Indarkeriaren Biktimen Babeserako, Segurtasun Indar eta Gorputzen Jokabide eta Organo Judizialekiko Koordinazio Protokoloa*.

Protokolo hau Babes Aginduaren Ezarpenerako Segimendu Batzordeak onartu zuen 2004ko ekainaren 10ean, eta Polizia Judizialaren Koordinazio Batzorde Nazionalak urte bereko irailaren 27an.

Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegien Ezarpenerako Batzorde Nazionalak¹ sortutako Batzorde Teknikoak, Protokolo hau aipaturiko Lege Organikora -aurrerantzean Lege Integrala- moldatzeko lana egin du; eta testu hori aipaturiko Batzorde Nazionalak eta Polizia Judizialaren Koordinazio Batzorde Nazionalaren Batzorde Teknikoak onartu dute 2005eko ekainaren 8 eta 28an, hurrenez hurren.

¹ Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegien Ezarpenerako Batzorde Nazionala ondoko organismo eta erakundeek osatzen dute: Justizia Ministerioa, Barne-arazoetako Ministerioa, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorra, Estatuko Fiskaltza Orokorra, Galiziako Xuntako, Eusko Jaurlaritzako, Andaluziako Juntako, Kataluniako Generalitateko, Valentziako Generalitateko, Kanarietako Gobernuo, Nafarroako Gobernuo eta Madrileko Komunitateko eskumendun Kontseilaritzak, Abokatutzako Kontseilu Orokorra eta Prokuradoreen Kontseilu Orokorra.

I.- ETXEKO ETA GENERO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO, SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEN JOKABIDEA

Familia esparruan indarkeriazko portaerak jasan dituzten emakumeentzako laguntza eta babesari lehentasunezko arreta eskaintzeko helburuarekin, eta, ahal den neurrian, aipaturiko tratatu txarren ondorioak leuntzeko asmoarekin, genero eta etxe indarkeriaren tratamenduan espezializatutako funtzionarioen presentzia bultzatuko da Segurtasun Indar eta Gorputzen unitate guztietan, eta baita euron trebakuntza espezifikoaren ere arriskuaren baloraziorako tresna eta adierazleetan.

I.A.- IKERKETA POLIZIALAREN FASEAN IZAN BEHARREKO JOKABIDEA

Genero eta etxe indarkeriaren alorreko arau-hauste penala suposa dezakeen gertakariaren baten berri izaten den une beretik, Segurtasun Indar eta Gorputzek ondoko jarduerak burutuko dituzte:

1.- Kasu bakoitzean ezarri beharko diren neurri polizialak eta judizialak erabakitzeko orduan, eta neurri segimendurako izendatu beharko den lehentasun ordena erabakitzeko orduan, duten garrantziagatik, miaketa prozedurak burutuko dira biktimaren arrisku egoeraren existentzia eta intentsitatea zehazteko, zehazki:

- Biktimari laguntza juridikorako duen eskubidearen berri emango zaio, protokolo honen I. eranskinean zehazten diren baldintzetan.
- Biktimaren eta lekukoaren (lekukoak baleude) berehalako eta zehaztasunezko deklarazioa hartu beharko da.
- Arau-hauste penalaren existentzia iradoki dezaketen zantzuak ikusten badira, berehalakotasunez hitz egin beharko da auzokoekin, familiako beste pertsonekin, lankideekin, eskolako jendearekin, Gizarte Zerbitzuetakoekin, biktimaren laguntzarako Bulegoekin, eta abar, ustezko erasotzaileak aurretik ere edonolako tratatu txarrik eman dion jakiteko, eta bere nortasunari eta balizko zaletasun eta menpekotasunei buruzko informazioa jasotzeko.

- Aurretik esku hartze polizialik izan den edota biktimarekin edo ustezko erasotzailearekin lotura duen aurretiko salaketarik izan ote den egiaztatuko da, eta egiaztatu egingo dira, baita ere, ustezko erasotzailearen aurrekariak eta zerbitzu medikuek igorritako biktimaren balizko lesioen parteak.
- Agintaritza Judizialak, inplikaturako pertsonekin lotuta, aurretiaz ezarritako babes-neurrien existentzia baieztatu beharko da. Xede horrekin, eta kasu guztietan, Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babeserako Erregistro Zentralean dauden datuak kontsultatu beharko dira.
- Biktima (edo biktimen) eta dagokien Segurtasun Indar eta Gorputzen arteko komunikazioa jarraitua eta etengabea izatea ahalbidetzen duten tresnak ezarriko dira, une oro arrisku egoera baloratzeko beharrezko datuak eskura izateko helburuarekin, eta horretarako, posible den guztietan:
 - Etxeko indarkeriaren biktimen laguntza eta babeserako trebakuntza espezializatua duen pertsonalari egotziko zaio funtzio hori. Bere laguntza pertsonalerako izendatutako funtzionarioarekin (edo funtzionarioekin) harreman zuzena eta etengabea ahalbidetuko dion telefonoa emango zaio biktimari.
 - Biktimaren eta dagokion segurtasun indar eta gorputzaren artean komunikazio azkarra, jarraitua eta etengabea ahalbidetzen duten tresnak edota gailu teknikoak emango zaizkio biktimari, behin kasuaren baldintzei eta biktimari berari arreta eskaini ostean tresna edo gailu teknikoak beharrezkotzat jotzen badira.

2.- Behin gertakariak eta dagoen arrisku egoera baloratu ostean, biktimaren eta bere senideen bizia, osotasun fisikoa eta eskubide eta interes legitimoak babesteko neurri espezifikoak hartzearen ala ez hartzearen egokitasuna erabakiko da, besteak beste:

- Babes pertsonala, duen arrisku mailaren arabera eguneko 24 orduetan zeharreko babes etengabea izan daitekeena.
- Autobabeserako neurriak hartzeko informazioa eta trebakuntza.

- Biktimak babes aginduaren eduki, tramitazio eta ondorioen inguruko, eta Lege Integralean aurreikusitako beste babes eta segurtasun neurri guztien inguruko, informazio argia eta eskuragarria jaso duela ziurtatzea; eta baita gizarte zerbitzu, biktimaren arretarako bulego eta bere eskura dauden koordinazio puntuen inguruko informazioa ere.
- Biktima egoera irregularrean dagoen emakume atzerritar bat den kasuan, arrazoi humanitarioengatik bere egoera erregularizatzeko duen eskubidearen berri eman beharko zaio, Atzerritartasun Araudiaren 45.4.a) eta 46.3 artikuluetan ezarritako baldintzen arabera.

3.- Familiaren bizilekuan egon daitezkeen edo ustezko erasotzaileak eskura izan ditzakeen arma edota tresna arriskutsuak konfiskatu egingo dira.

4.- Gertakarien funtsak edota arrisku egoerak horrela eskatzen duenean, ustezko erasotzailea atxilotu eta epailearen esku utzi beharko da.

I.B.- SALAKETA JASOTZEA ETA ATESTATUA EGITEA

Segurtasun Indar eta Gorputz guztiek jaso beharko dituzte atestatuan Protokolo honetan Eranskin gisa ageri diren eginbideak eta gutxieneko edukiak, eta atestatua Polizia Judizialaren Koordinaziorako Batzorde Teknikora igorri beharko da onarpena jasotzeko; eta, behin onartutakoan, organo judizialei, Ministerio Fiskalari eta Emakumearen kontrako Indarkeriarentzako Epaitegien Ezarpenerako Batzorde Nazionalean ordezkapena duten gainontzeko Organismo eta Erakundeei emango zaie atestatua.

Atestatuan jasota geratu beharko dira ustezko erasotzaileak dituen aurrekariak, berak burututako edozein modutako tratu txarrei erreferentzia egiten diotenak; Protokolo honetako I.A. idazpuruan azaldutakoaren arabera eginiko ikerketen emaitza gisa lortutako aurrekariak

Begizko ikuskapenaren eta biktimaren deklarazioaren eginbideak, ahal den neurrian bederen, argazki edo bestelako bitarteko teknikoan (bideoa, eta abar) bidez dokumentatuko dira Agintaritza Judizialak gertakarien eta hauek inguratzen dituzten baldintzen balorazioa azkarrago egitea errazteko.

Etxeko indarkeriagatiko arau-hauste penaletik edo Babes Aginduaren eskaeratik eratorritako atestatuaren instruktore den Segurtasun Indar eta Gorputzen Unitateak, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu (Agintaritza Judizialaren araberakoak) afera ezagutzera doan eskumendun Agintaritza Judizialaren aurrean (Emakumearen kontrako Indarkeriarentzako Epaitegia, Guardiako Instrukzio Epaitegia) biktimaren edo bere ordezkari legalaren, eskatzailearen, salatuaren edo ustezko erasotzailearen eta balizko lekukoaren presentzia ziurtatzeko.

Horretarako, ustezko erasotzailearen identifikazio, kokapen eta kontrolera eraman gintezkeen ahalik eta datu gehien (datu pertsonalak, telefonoak, bizilekuak, lanak, sarritan bisitatzen dituen lekuak, ibilgailuak, argazkiak, bideo zintak, eta abar) bilduko dira atestatuaren tramitazioan zehar, bere deklarazioa gauzaturiko eginbidean barneratu eta organo judizialaren aurrean bere ondorengo zitazioa bermatzeko moduan.

Polizia Unitateak eskuragarri izango ditu erasotzaileak biktimarekin, euron seme-alabekin eta familiako gainontzeko kideekin espazio fisiko berean topo ez egiteko beharrezkoak diren baliabideak.

Dena den, Polizia Judizialaren jokabideak kontuan izango ditu Polizia Judizialaren Koordinazio Batzorde Nazionalak ezarritako irizpideak.

I.C.- BABES EDO BERMERAKO NEURRI JUDIZIALEN KONTROL ETA SEGIMENDUAN IZAN BEHARREKO JOKABIDEA.

Behin organo judizialak igorritako erabakiaren eta dokumentazio gehigarriaren komunikazioa jaso ostean, onartutako neurrien (edo neurriaren) segimendu eta kontrolerako erantzukizuna duen unitate operatiboak ondoko irizpideak jarraitu beharko ditu:

1.- Kasu bakoitzean dagoen arriskuaren azterketa pertsonalizatua, ager daitezkeen egoera ezberdinei ezarri beharreko neurriak graduatzeko. Arriskuaren egoera objektiboaren motibazioa eta diagnostikoa egiterakoan, kontuan izango dira bai ikerketa fasean eta atestatua egiterakoan bildutako datu eta aurrekariak, bai agintaritza judizialak emandakoak (ikusitako protokolo honetako III.D. idazpuruaren 2. eta 3. atalak) eta bai gizarte zerbitzuek, Biktimaren Arretarako Bulegoek edo izendatutako Koordinazio Puntuak emandako datu eta aurrekariak.

2.-Erabaki judizialaren edukiaren analisia. Biktimaren (edo biktimen) segurtasuna hobetzen lagun dezaketen elementuak zeintzuk diren zehazteko ezinbestekoa da erabaki judizialaren parte dispositiboaren edukia zehaztasunez ezagutzea (hurbiltze debekuan zehazturiko metro kopurua edo eremu espaziala, debekuaren haustea egiaztatzekeo egokiak diren tresna teknologikoak...)

3.- Balizko kasu zehatzaren arrisku egoerarako egokiak diren babeserako neurriak hartzea: 24 orduko zaintza poliziala, inputatuaren zaintza elektronikoa, telefono mugikorrek esleitzea, etengabea ez den zaintza poliziala, eta abar. Horretarako, ondokoa izan beharko da kontuan:

- Inola ere ezin dira geratu babeserako neurriak biktimaren esku, hark bere kasa erabiltzeko modura.
 - Posible den guztietan, babeserako aginduaren edo urruntze neurriaren betetzearen kontrol poliziala erasotzailearengan ezarriko da.
- 4.- Segimendu txostenak egitea, eskumena duen Agintaritza Judizialera helarazteko, baldin eta organo judizialak eskatzen baditu edota Segurtasun Indar eta Gorputzek beharrezkotzat jotzen baldin badituzte.

4.- Jarraipen txostenak idaztea eskumena duen Agintari Judizialei bidaltzeko, organo judizialak horrela eskatzen duten kasuetan edo Segurtasun Indar eta Kidegoek beharrezkoa dela uste dutenean.

5.- Berriz ere elkarrekin bizitzen jarriko balira, bizilekuaren lekualdatzea eskatuz gero edota biktimak babes estatutuari uko egingo balio, balizko egoera horietan Segurtasun Indar eta Gorputzek gertakari horien berri emango diote organo judizialari, honek egokiak iruditzen zaizkion neurriak har ditzan.

II.-URRUNTZE NEURRIEN BETETZE ERAGINKORRA

Biktimaren babes sistemaren eraginkortasunerako urruntze neurriak duen garrantziaren jabe izanik, neurri hau betetzea bermatzen duten baldintzak ezarriko dira.

II.A.- URRUNTZE NEURRIAREN ESPAZIO ETA DENBORA EREMUA

Organo judizialak hurbiltze debekuaren eduki zehatza erabakitzen duenean, komenigarria izaten da erantzun polizial azkarra ahalbidetzen duen adinako eremu espaziala ezartzea, inputatuaren eta biktimaren arteko begizko kontaktua bera ere ekidin ahal izateko. Ondoko artikuluetan zehazten da hurbiltze debekua: KP 57. (zigorra), KP 105.1 g) (segurtasun neurria), KP 83.1,1. eta 1. bis(zigorra indargabetzeko baldintza),KP 93.(baldintzapeko askatasuna mantentzeko jokabide araua), PKL [Prozedura Kriminaleko Legea] 544. bis (biktimaren kautela-neurria edo biktimaren babes neurria) eta 1/2004 LO 64. (bizilekutik irteteko neurria, urruntze neurria edo harremanak ezabatzeko neurriak). Horretarako, autoak distantzia eta urruntze neurria indarrean sartuko den data eta neurriaren indargabetze data ezarriko ditu. Distantzia gutxienez 500 metrotakoa izatea gomendagarria dela esan daiteke.

II.B.- SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEK ERANTZULEA ATXILOOTZEA

Inputatuak urruntze neurria mingarriki hausten duen kasuan biktimaren arrisku egoeraren areagotze objektiboa gertatzen da, eta beraz, arau-hauslea berehala atxilotu beharko da, bai KP 468. artikulua kasuan, eta bai ondoko artikuluek aurreikusitako kasuetan: KP 153.3 (lesioa, tratu txarrak ematea edo armekin zein tresna arriskutsuekin mehatxu egitea urruntzea hautsiz), KP 173.2, 2. paragrafoa (ohiko indarkeria delitua urruntzea hautsiz), KP 171.4 eta 5 (mehatxu arinen delitua urruntzea hautsiz) eta KP 172.2 (hertsapen leunen delitua urruntzea hautsiz). Ondoren, atxilotua epailearen esku utziko da berehala, dagokion atestatuarekin batera. Jarduera honen berri eman beharko zaio Ministerio Fiskalari.

II.C.- AGERRALDIA, URRUNTZEA EZ BETETZEAGATIK.

Atxilotua eskumena duen Epaitegiaren eskura jartzen denean (Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegia edo Guardiako Epaitegia), honek nahitaez deituko du PKL 505. artikuluan araututako agerraldia 503. artikularen arabera behin-behineko presoaldia ezartzeko edo erruztatuaren askatasun pertsonalaren mugatze handiagoa suposatzen duten bestelako kautela-neurriak ezartzeko, eta horretarako arau-haustearen eragina, bere arrazoiak, larritasuna eta baldintzak kontuan hartu beharko dira; dena dela, ez dute eraginik izango arau-haustek ekar ditzakeen erantzukizunetan.

Babes Aginduaren eskaera egiten denean, kontuan izan behar da urruntze neurria urratzeagatik egindako audientziaren edukia PKL 544 hiru. (PKL 544 hiru. 4,2. artikulua) artikulua aurreikusten duen aipaturiko Babes Agindua ezartzeko audientziaren baitan burutuko dela. Bestalde, "delituagatik egindako epaiketa azkarraren" balizko prozeduran (PKL IV. Liburuko III. Tituluan), aipaturiko audientzia, posible den guztietan, PKL 798 artikularen audientziarekin egokituko da, Babes Aginduaren (PKL 501.2 ,2. eta 544 hiru.4,2. artikulua) eskaria egon ala ez egon.

Agerraldi honetara ondorengo pertsonen deialdiak: Inputatua, beronek aukeraturiko edo ofizioz izendatutako abokatuaren laguntza izan beharko du; Ministerio Fiskala agertutako gainontzeko parteak; Babes Agindurako audientziaren baitan burutzen denean, biktima edo bere ordezkari legala ere deituko da, eta baita Babes Aginduaren eskatzailea den pertsona ere, biktima ez den beste pertsona bat baldin bada.

II.D.- BEHIN-BEHINEKO PRESOALDIAREN BALIZKO APLIKAZIOA EDOTA BIKTIMA BABESTEKO BESTELAKO NEURRIAK HARTZEA

Behin agerraldia burutu ostean, eta kasu bakoitzean eskatzen diren baldintzak betetzen badira, organo judicialak ondoko neurriak har ditzake:

- Behin-behineko presoaldia. PKL 503.1,3. c) artikularen edukiaren arabera eta PKL 544 bis artikularen azken paragrafoaren arabera (urriaren 24ko 13/2003 Lege Organikoak emaniko bi arauon idazketaren arabera), urruntze neurria

hausteak behin-behineko presoaldia ezartzea xedatu dezake, izaera orokorrarekin.

- Beste kautela-neurri edota biktimaren babeserako neurriak, KP 48 eta PKL 544 bis artikuluek aurreikusten dituzten horiek ere barne harturik, inputatuaren zirkulazio eta deanbulatoria askatasunerako gogorragoak direnak (1/2004 LO 64. artikulua).

Ministerio Fiskalaren edo parte salatzailearen baten eskaera behar izango da, 505 artikuluaen audientzia burutu aurretik, behin-behineko presoaldia edo fidantzapeko behin-behineko askatasuna adosteko. Ofiziozko Agintaritza Judizialak edo parteak eskatuta, beste edonolako kautela-neurri bat hartu ahal izango da.

III. - ORGANO JUDIZIALEN ETA SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAK.

Eskumena duten organo jurisdikzionalen eta Segurtasun Indar eta Gorputzen arteko komunikazioak hobetu egingo dira informazioa trukatzeko sistema bizkor baten ezarpenaren bidez, biktimaren segurtasunean eragin dezaketen gertakarien berri elkarri berehalakotasunez ematea ahalbidetzeko helburuarekin. Aipaturiko sistema jarraian ageri diren funtsetan oinarritzen da.

III.A.- ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMEN BABESERAKO ERREGISTRO ZENTRALAREN FUNTZIONAMENDUA HOBETZEA

Etxeko Indarkeriaren Biktimen Babeserako Erregistro Zentralaren funtzionamendua hobetzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezarriko dira, Babeserako Aginduari dagokion uztailaren 31ko 27/2003 Legeak aurreikusitakoaren arabera, eta martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuan araututakoaren arabera:

- Organo judizialek datuak igortzea martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuan eta burutzen dituzten xedapen administratiboetan araututako prozedura telematikoen bitartez, nolana ere, organo judizialek Erregistro Zibilera igorri beharreko informazio guztiaren transmisio bizkor eta segurua bermatuz, izaera pertsonaleko datuen babesa indarrean dagoen araudiak eskaturiko baldintzetan ziurtatuz.

- Bizkortasuna, bai Erregistroan egin beharreko inskripzioari dagokionean eta bai Polizia Judizialak 355/2004 Errege Dekretuan aurreikusitako baldintzen arabera beronen edukia eskuratzeari dagokionean ere.

III.B.- ORGANO JUDIZIALEN ETA SEGURTASUN INDAR ETA GORPUTZEN ARTEKO KONEXIO TELEMATIKOA

Organo judizial penalen eta Segurtasun Indar eta Gorputzen artean agiriak trukatzeko sistema telematiko bat garatzea aztertuko da:

- Komunikazioaren konfidentzialtasuna bermatzen duen inguru erabat seguruan gauzatuko da.
- Justizia Administrazioaren sare telematikoen eta Segurtasun Indar eta Gorputzen sareen arteko konexioa Botere Judizialeko Kontseilu Orokorren baitan ezarritako "Puntu Neutro Judizialaren" bitartez burutuko da. Komunitate Autonomoaren lurralde esparruaren barruan gauzatu behar diren konexioen kasuan, Administrazio bakoitzak bere komunikazio elektrikodun sareetan ezarritako konexio puntuen bitartez egin daitezke.
- Helburu hau aurrera ateratzeko beharrezkoak diren aplikazio informatikoen bilakaera eta ezarpena garatuko dira, jokabide ildo orokorren barruan, Segimendu Batzordeak koordinatu eta adostuta, eta BJLO 230.5,2. artikuluan ageri dena egokituta.

Agiri trukerako sistema telematiko garatzen den bitartean, agiriak fax bidez igortzea bultzatuko da; dena dela, dena dela, fax bidezko igorpenaren ondoren ohiko bitarteko bidez igorri beharko dira agiriok.

III.C.- SEGURTASUN INDAR ETA GORPUZEK ORGANO JUDIZIALEI IGORRITAKO KOMUNIKAZIOAK

Etxeko edo genero indarkeria alorreko salaketa penal oro zein dependentzia polizialean aurkezturiko biktimen babeserako edo segurtasunerako neurri baten

eskaera oro, eskumena duen Agintaritza Judizialera bideratua eta igorria izan behar da luzamendurik gabe, derrigorrezko atestatu polizialarekin batera, ezarri daitekeen premiazko edozein kanal segururen bidez, kanal telematikoa barne; bai ohiko prozedura bidetik tramitatzen bada eta bai, horrela badagokio, “epaiketa azkarrentzako” ezarritako bide berezitik tramitatzen bada.

Horretarako, polizia judizialak kontuan izan beharko ditu Jokabide judizialen alderdi osagarrien inguruko ekainaren 7ko 5/1995 Araudiaren 40. eta 47. artikuluetan ezarritakoak, gerora Botere Judizialeko Kontseilu Orokorraren Osoko Bilkuraren 1/2005 Araudi Hitzarmenak moldatu zituenak; 40. artikulua, Instrukzio Epaitegi eta Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegiak ordezkatzekoan Guardiako Epaitegiei dagozkien funtzioen berri ematen du eta 47. artikulua, balizko epaiketa arinen kasurako zitazioak egiteko irizpideak azaltzen ditu. **II. Eranskina**.

Irizpide orokor gisa, genero indarkeriarekin zerikusia duten gertaerak direnean, polizia judizialak atestatuak eta babes agindurako edo bestelako babes eta segurtasunerako kautela-neurriak igorriko dizkio eskumena duen Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegira -biktimaren bizilekuari dagokionera- eta bere esku jarriko ditu gertaeron harira atxilotutakoak. Gainera, parteak derrigorrez deitu beharko ditu Epaitegi horretara.

Hala eta guztiz ere, lurraldeari dagokionean eskumena duen Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegiaren aurrean auzitegi garaian agertzea ezinezkoa denean, atxilotua (atxiloturik balego) atxiloteta lekuari dagokion guardiako Instrukzio Epaitegiaren eskura jarri beharko da, bere egoera pertsonala erregularizatzeko helburu soilarekin.

Aurreko paragrafoan aipaturiko kasu berean, babes agindurako eskaera edo bestelako kautela-neurriak gertakariak izan diren lekuari dagokion guardia Epaitegira igorriko dira; dena dela, eskaeraren aurkezpena gertakariak izan diren lekuari ez dagokion beste nonbait izan baldin bada eskaerari dagokion guardiako Epaitegira igorriko da, bere premiazotasunagatik. Parteak dagokien Epaitegiaren aurrera joatera deituko ditu Prozedura Kriminaleko Legeko 544 hiru. artikuluan aurreikusitako audientzia burutzeko eta, era berean, eskumena duen Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegira deituko ditu balizko epaiketa azkar edo berehalako falta kasuetan, distantzia geografikoagatik edota bestelako arazoren

batengatik eskumena duen Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegiarekin zitazioak koordinatzea ezinezkoa den kasuetan izan ezik.

PKL (Prozedura Kriminaleko Legea) 796. artikulua zehazten dituen Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegi aurrera eginiko zitazioek kontuan izango dituzte Alderdi Osagarrien Araudiko 47. artikulua berria aurreikusitakoak.

Ikerketaren baldintzek atestatu osoa Agintaritza Judizialera igortzea ezinezko egiten dutenean (eginbide batzuk burutzea ezinezkoa izango litzatekeelako) eta kasuaren premiazkotasunak –behin biktimaren egoerari arreta eskaini ostean– berehalakotasunezko neurriak hartzea eskatuko balu, salaketa edo Babes Agindua igorri egingo dira une horretara arte instruitutako atestatuarekin batera, atestatu honi dagozkion eginbide luzagarrien bidez amaiera emanaz.

Polizia Judizialak une oro eskainiko die Agintaritza Judizialari, Ministerio Fiskalari eta, bere kasuan, Biktimaren Arretarako Bulegoei ezagutzen dituen gertakarien berri; Protokolo honetako I.C. idazpuruako 5. atalean bereziki zehazturiko hartu beharreko babes neurrien eduki edo garapenean eragina izan dezaketen gertakarien inguruko informazioa eskainiko die.

III.D.- ORGANO JUDIZIALEK SEGURTASUN INDAR ETA GORPUZEI IGORRITAKO KOMUNIKAZIOAK

1.- Epailearen erabakiak

Agintaritza Judizialak babes agindua, kautela-neurriak edo biktimarentzako bestelako babes eta segurtasun neurriak agintzen dituen erabakien berri emango die lurraldearen arabera eskumena duten Segurtasun Indar eta Gorputzei edota, bere kasuan, lurralde bakoitzean izendaturiko harrera puntu zentralizatuei; halaber, instrukzio fasean (delituengatik prozesuetan bitartekaria) agindutako neurrien kentze eta moldaketen berri ere emango die, eta baita balizko helegiteen tramitazioan zehar (Lege Integraleko 96. artikulua) epaian mantentzen diren haien berri ere.

Bestalde, etxeko indarkeriaren biktimen babeserako Erregistro Zentrala arautzen duen martxoaren 5eko 355/2004 Errege Dekretuaren 5.1,2. eta 6.2,2.

artikuluetan ageri diren organo judizialen betebeharren konplimendu eraginkorra bermatuko da: zigorraren (epai irmoan ezarritako zigor edo segurtasun neurria) eta kautela-neurrien agiri idatzia igortzea Polizia Judizialera, eta baita agindutako babes aginduak eta babes eta segurtasun neurriak ere. Horretarako, 355/2004 Errege Dekretuan ageri diren ereduak erabiliko dira eta, erabilgarri dagoenean, Protokolo honetako III.B idazpuruan aipaturiko agiri trukerako sistema telematikoa erabiliko da. Halaber, agindutako kautela-neurri, babes neurri edo segurtasun neurrien inguruko edozein aldaketaren berri Polizia Judizialari berehala ematea errazteko asmoz, organo judizialek ere aipaturiko aldaketen agiri idatzia igorriko dute.

2.- Txostenak

Biktimak bizi duen arrisku egoeraren azterketa pertsonala errazteko, organo judizialak biktimaren, inputatuaren edota bere hurbileko senideen inguruko baldintza pertsonal, psikologiko, sozial edo bestelakoak jasotzen dituzten prozedura penalean dauden txostenen kopiak igorriko dizkie lurraldearen arabera dagokien Segurtasun Indar eta Gorputzei.

Zentzu honetan:

- Organo judizialak agindu diezaioke Auzitegi-mediku Taldeari biktimarengan, salatutako pertsonarengan, salaturiko gertaerengan eta familiako baldintza psikosozialengan biltzen diren elementuak aintzat hartuz gauzaturiko arrisku adierazleen konkurrentzia txosten bat egitea. Arestian aipaturikoa burutze aldera, Justizia Administrazioaren zerbitzura dagoen pertsonalaren inguruko eskumena duten Administrazioek ondoko Protokoloak onartzeari ekin beharko diote.
- Halaber, organo judizialak Biktimaren Arretarako Bulegoetan, Talde Psikosozialetan eta Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden bestelako erakundeetan lan egiten duten gizarte-langileek eta psikologoek alor honetan txostenen balizko igorpena egitea baloratuko du.

3.-Beste aurrekari batzuk

Agintaritza Judizialak egile beraren kontra irekitako beste prozedura penalen existentziaren berri emango die segurtasun indar eta gorputzei, edozein dela ere momentuan dauden prozedura fasea eta nahiz eta prozedura epaia emanda eta amaituta egon. Banaketa penalari eta etxeko indarkeriarako erregistro informatikoari buruzko arauen BJKO-eko (Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko) apirilaren 9ko 3/2003 Instrukzioaren arabera ezarri den Erregistroetan dagoen informazioa erantsiko da.

4.-Beste komunikazio batzuk

Agintaritza Judizialak biktimaren segurtasunean eragina izan dezaketen gertakarien berri emango die une oro, gertakarion jakitun den neurrian, eskumena duten Segurtasun Indar eta Gorputzei eta Ministerio Fiskalari.

Nolanahi ere, inputatuari babes agindua edo urruntze neurria adosten den epaiaren jakinarazpena egin zaiola azaldu behar zaio unitate polizialari.

5.- Komunikazioen hartzailea

Agintaritza Judizialak, idazpuru honetako 1, 2, 3 eta 4. puntuek aipatzen dituzten komunikazioak lurraldearen arabera eskumena duten Segurtasun Indar eta Gorputzei igorriko dizkie, edota bere kasuan, lurralde bakoitzean izendaturiko harrera puntu zentralizatuei.

Komunikazioa jasotzen duen Unitate Polizialak beronen berri eman beharko dio, luzamendurik gabe, etxeko indarkeriaren alorrean eskumena duen Segurtasun Indar eta Gorputzei dagokien Unitateari (Polizia Gorputz Nazionala –EAZ [Emakumeari Arreta Zerbitzua], PLBU [Prebentzio, Laguntza eta Babes Unitateak]–, Guardia Zibila –EMADE [Emakume eta Adingabekoetan Espezialistak]–, Polizia Autonomikoa eta Udaltzaingoa) Halaber, Segurtasun Indar eta Gorputz ezberdinen arteko (Polizia Gorputz Nazionala, Guardia Zibila, Polizia Autonomikoak eta Udaltzaingoa) koordinazio mekanismoak martxan jarriko dira, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera eta xede horretarako garatutako protokoloaren arabera. Babes aginduaren edo urruntze neurriaren inguruko, edota euron kentze eta aldaketaren inguruko, Aginte Judizialak igorritako komunikazioa jasotzen duen

unitate polizialak, luzamendurik gabe sartuko du berau Ezarpenen Datu Base Nazionalean (EDBN).

IV.- MINISTERIO FISKALAREN JOKABIDEA

1/2004 LO-aren 23, 26 eta 27. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera Ministerio Fiskalak genero indarkeriaren biktima egoera egiaztatu behar duenean, Estatuko Fiskaltza Orokorraren 2/2005 Instrukzioan ezarritakoaren arabera izango da.

Indarrean dagoen legediak, eta Estatuko Fiskaltza Orokorrak arlo honetarako emaniko Instrukzioetan ezarritako irizpideen arabera, Fiskalari agintzen dion biktimaren defentsa funtzioa beteaz, Fiskalak jarraian adierazitakoak bermatu beharko ditu: etxeko eta genero indarkeriaren biktimek euren eskubideen berri izatea, PKL 109 eta 110. artikuluetako jarduerak eskaintzea, bere segurtasunean eragina izan dezaketen auzibide egintzen berri ematea (PKL 109 eta 544 hiru. 9 artikulua), 35/1995 Legean aurreikusitako neurriak (aplikagarriak balira), bere babes eta segurtasunarekin zerikusia duten 1/2004 LO-an aurreikusitako neurriak eta, telelaguntza programa izatea genero indarkeriaren biktima den kasuetarako.

Ministerio Fiskalak, bere organoen bitartez, beharrezkoak diren harreman instituzionalak izango ditu instantzia judicial, polizial, osasuneko eta laguntzakoekin, eta baita abokatu eta prokuradoreen elkargoekin ere, etxeko eta genero indarkeriari erantzuterakoan kooperazio eraginkorra izateko helburuarekin.

Emakumearen kontrako Indarkeriaren Auzi-gelako Fiskala izango da, etxeko eta genero indarkeriaren alorrean, Fiskaltza ezberdinen Emakumearen kontrako Indarkeriarako Sailen jokabidea estatu mailan koordinatu eta ikuskatzeaz arduratuko dena, horretarako beharrezkoak liratekeen instrukzioen igorpena proposatuz Estatuko Fiskaltza Orokorrari (1/2004 LO-ak gehituriko 50/1981 Legearen 18 quáter artikulua)

Justizia Auzitegi Nagusien eta Probintzia Auzitegien Fiskaltzen Emakumearen kontrako Indarkeriarako Sailen lurralde esparruan, zuzendaritza eta koordinazio funtzioak horretarako izendatua izan den Buruzagitzako Ordezkariek

hartuko ditu bere gain (50/1981 Legearen 22.6. artikulua, 1/2004 LO-aren idazkeraren arabera)

V.- DATU ESTADISTIKOEN KOMUNIKAZIOA

Unitate Polizialek, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrak eta Estatuko Fiskaltza Orokorrak etxeko eta genero indarkeriaren lurralde eraginari buruzko datuen inguruko aldizkako txostenak egiteko konpromisoa hartzen dute; txostenok Justizia Ministeriora igorriko dira, Planta Judizial arloko erabakiak hartzeko jokabide politikak ebaluatzeko helburuarekin.

Aipaturiko txostenak Komunitate Autonomoetara ere bidaliko dira, etxeko eta genero indarkeriak bere lurralde esparruan dituen ondorioen arabera, etxeko indarkeriaren alorreko politikak planifikatu, garatu eta exekutatzeko helburuarekin.

VI.- ESPARRU AUTONOMIKOKO JOKABIDE PROTOKOLOAK

Protokolo honek ezarritako jokabide ildoen eta marko orokorraren arabera, Polizia Autonomiko propioa duten Komunitate Autonomoek eta Justizia alorrean eskumena dutenek etxeko eta genero indarkeriaren biktimen babeserako jokabide zehazdun Protokoloak ezarri ahal izango dituzte euren lurralde esparrurako.

I. ERANSKINA: ATESTAUAREN GUTXIENKO EDUKIA

1.- BIKTIMAREN ADIERAZPENA

Deklaraziori hasiera eman aurretik, defentsa juridiko espezializatua eskatzeko duen eskubidearen berri emango zaio biktimari, eta bere kasuan, doakoa, berehalakoa edota berak aukeratutako abokatua izan daitekeena. Biktimak horrela eskatzen baldin badu, 24 orduko Guardia Zerbitzuko Abokatuaren presentzia errekerituko da (baliabide hau duten lekuetan eta eskaintzen den eran); kasu horretan, atestatuaren edukia ezagutzen utzi beharko zaio.

Halaber, lesiorik ba ote duen galdetuko zaio, eta erantzuna baiezkoa bada:

- a) Jada beste osasun zentroyen batean laguntza-medikua jaso badu eta laguntza-medikuaren parte baldin badu, salaketari erantsiko zaio aipaturiko parte medikua.
- b) Beste kasu batean, laguntza-medikua jasotzera beste osasun zentro batetara eramateko aukera eskainiko zaio, igortzen den parte medikua salaketari erantsiz.
- c) Biktimak ez baldin badu beste osasun zentro batetara joan nahi, idatziz jasoko dira, eginbide bitartez, hauteman daitezkeen ageriko lesioak eta biktimari lesioen argazkiak ateratzeko baimena eskatuko zaio, ondoren argazkiok salaketari erantsiz.

Gizarte-zerbitzuetan (udal gizarte-zerbitzuetan, emakumearen arretarako zentroetan, biktimaren arretarako bulegoetan) laguntza jaso ote duen ere galdetuko zaio, eta erantzuna baiezkoa bada, jarduera frogagarria ematen duten zerbitzuotako gizarte-langileek eta psikologoek eginiko txostenak atestatuari erantsiko zaizkio, bai biktimak emandakoak eta bai gizarte-zerbitzuek emandakoak, biktimak horretarako emandako baimena espresuki jasoz.

Biktimaren egoera emozionala kontuan izanik, berezkotasunez hitz egiten utzi behar zaio, gertakarien kontakizuna moztu barik, deklarazioak ahalik eta zehaztasun eta xehetasun gehien izan ditzan.

Lehenik eta behin, bere segurtasuna eta bere seme-alabena bermatzeko (eta, horrela beharko balitz, erasotzailearen atxiloketarako) baliagarri izan daitezkeen datuen inguruan galdetuko zaio.

Behin biktimak berezkotasunez deklaratu ostean, ahalik eta informazio gehien erabiliz bete beharko da atestatua, nolanahi ere, gertakariekin erlazonaturiko informazioa eskatuko zaio; dena dela, ikerketa poliziala osatzeko beharrezkotzat jotzen diren bestelako galderak ere egin ahal izango dira.

2.- BIKTIMAREN ETA BERE ERASOTZAILEAREN DATUAK

- Tratu txarrak jaso dituen pertsonaren (edo pertsonen) datu pertsonalak.
- Bizilekua eta harremanetarako telefonoa.
- Erasotzailearen (edo erasotzaileen) datu pertsonalak
- Bizilekua eta telefonoa (edo telefonoak).
- Biktimaren eta erasotzailearen arteko harreman familiarra, harreman afektiboa edo bestelako harremana.
- Elkarrekin bizitzen eginiko denbora.
- Erasotzailearen ogibidea eta lan egoera.
- Lantokia
- Erasotzailearen egoera ekonomikoa.
- Familiako kargak betetzerako orduan erasotzaileak duen portaera.
- Erasotzailearen izaeraren deskribapena.
- Osasun egoera (gaixotasunak, tratamendu medikuak, eta abar)
- Erasotzailearen zaletasun eta menpekotasunak, toxikomaniak, eta abar.
- Sarritan bisitatzen dituen lekuak.
- Dituen armak (euron edukitze legala edo ilegalak den, eta bere lana dela eta armak erabili behar ote dituen)
- Erasotzaileak erabiltzen duen ibilgailua (edo ibilgailuak).
- Biktimaren (edo biktimen) argazki gaurkotua.
- Ustezko erasotzailearen argazki gaurkotua.

3.- FAMILIA TALDEAREN DATUAK

- Familia taldea osatzen duten kideak, bere kasuan, seme-alabak bienak diren edo ez diren zehaztuz eta bikotekidearekin bizi diren edo ez zehaztuz. Euron nortasun eta adinaren inguruko datuak.
- Banaketa edo dibortziorako prozedura zibilen existentzia, eta horrela izanez gero, tramitatu diren edo tramitatzen ari diren epaitegia, eta bizilekuaren erabileraren eta seme-alaben zaintzaren inguruan (seme-alabarik balego) hartu diren neurriak.
- Biktimaren lan egoera.
- Biktimaren egoera ekonomikoa.
- Biktimak erasotzailearekiko duen menpekotasun ekonomikoa (menpekotasun ekonomikoa baldin badu).
- Berarekin bizi diren beste biktimen lan egoera (aurrekoak, ondorengoak,...).
- Berarekin bizi diren beste biktimen egoera ekonomikoa (aurrekoak, ondorengoak,...).
- Bere menpean dauden adingabekoen egoera (bere menpeko adingabekorik balego).
- Biktimak edo biktimek sarritan bisitatzen dituzten lekuak (laneko tokiak, aisialdikoak, eskolak, eta abar)

4.- BIZILEKUAREN ETA ONDAREEN DATUAK

- Ezkontza erregimena (irabazpidezkoa, ondasunen banatzea,...), ezkontuta baleude.
- Familiaren bizileku mota (jabetza, alokairua, eta abar).
- Bizilekuak dituen segurtasun neurriak.
- Bizilekuaren egoera (komunitatean edo isolatuta).
- Biktimaren edo erasotzailearen jabetzakoak diren beste bizileku batzuk.
- Biktimaren jabetzako ibilgailuak.
- Edozein eratako laguntza eskain diezaioketen senide edo lagunak.

5.- GERTAKARIAK

- Gertakarien deskribapena. Gertakarien kontakizuna kronologikoa, argia eta zehatza izango da. Biktimari gertakaria bere hitzez azaltzeko eskatuko zaio, balizko esamolde gordinak aldatu barik.
- Gertakarien kokalekua.
- Gertakariak izan zireneko data.
- Egileak erabilitako arrazoiak.
- Tratu txar mota: fisikoa, psikologikoa edo morala. Jasandako tratu txarra zehaztasun guztiekin kontatu behar da, esamolde orokorreari ihes eginez eta erabilitako hitzak, irainak, mehatxuak, eta abar, ahal den fideltasun handienarekin islatuz; tratu txarrak zenbat aldiz izan diren ere jasota geratu beharko da.
- Erabilitako bitartekoak.
- Biktimaren osasun egoera (gaixotasunak, tratamendu medikuak, eta abar).
- Aurretiaz izandako antzeko gertakariak, salatu ez diren arren.
- Aurretiaz izandako gertakariengatik egin diren salaketak. Gogoratuz gero, noiz eta noren aurrean izan zen.
- Babes aginduren baten pean ote dagoen.
- Tratu txarra adingabekoen aurrean izan ote den.
- Familia taldeko beste kideren batek edota beste bizikideren batek ere tratu txarrak jasan ote dituen salatutako pertsonaren eskutik. Erantzuna baiezkoa baldin bada, biktima horientzako Babes Agindua eskatzeko aukeraren berri emango zaio.
- Salatutako gertakariak berretsi ditzaketen lekukoak (senideak, lagunak, auzokoak, eta abar).

6.- BABES ETA SEGURTASUN NEURRIEN ESKARIA

Edozelan ere, Babes Agindurako eskaria egiteko edo bere babes eta segurtasunerako bestelako neurriren baten eskaria egiteko duen aukeraren berri emango zaio biktimari, eta baita eskarion eduki, tramitazio eta ondorioen berri ere. Biktimak eskaria egitea erabakiz gero, dagokion eskari hori bete eta, atestatuarekin batera, eskumena duen Epaitegira igorriko da.

7.- SALATUAREN AGERRALDIA ETA ADIERAZPENA

Bere datu pertsonal guztiak jasoko dira.

Salatutako pertsonaren adierazpenaren xedea gertakarien inguruko informazio zehatza jasotzea eta ikerketa poliziala erraztea da, eta baita Agintaritza Judizialak hartu beharreko erabakia erraztea ere.

Biktimak emandako erantzunak salatutako pertsonari eginiko beste hainbat galderen bidez egiaztatu beharko dira, ikerketaren arrazoi diren gertakariak argitzea ahalbidetu dezaten.

8.- LEKUKOEN ADIERAZPENAK

Bere datu pertsonal guztiak jasoko dira.

Atestatuaren gorputzean lekuko bakoitzaren identifikazio eta konstantzia jasota geratu ostean, gertakarien argiketarako funtsezkoak diren galderak egiteari ekingo zaio, eta era berean, bai biktimak eta bai ustezko erasotzaileak eginiko adierazpenak egiaztatuko dira. Eta nolana ere, gutxienez ondoko puntuei buruz galdetuko zaie:

- Begizko lekukoa ala erreferentziakoa izan ote zen.
- Berak ezagutzen dituen gertakarien deskribapena.
- Aurretiaz izandako balizko antzeko gertaeren berri ote duen.
- Lehenago, inoiz biktimari laguntza eskaini behar ote izan zion.
- Bizi diren komunitatean biktimak eta erasotzaileak duten ohiko portaera, lekukoa komunitate berean bizi baldin bada.
- Biktimarekin eta erasotzailearekin duen harremana.

9.-BIKTIMARI EMANDAKO LAGUNTZAN PARTE HARTU DUTEN AGENTE POLIZIALEN DEKLARAZIOA

Ezinbestekoa da biktimari emandako laguntzan parte hartu duen agente polizial bakoitzaren deklarazio zehatz eta pertsonalizatuak idatziz jasotzea, parte hartu duen polizia bakoitzak buruturiko eginbide eta jokabideak aipatuz.

Atestatu poliziala biktima, bere eskariz zen hirugarren baten eskariz, biktimari berari emandako laguntzan parte hartu duten agente poliziek lagunduta doalako ireki bada, deklarazio eginbide hau atestatuaren hasieran jasota geratu beharko da.

10.- SALAKETAREN EGIAZTAPEN ETA BAIEZTAPENERAKO EGINBIDE POLIZIALAK

Era berean, Polizia Judizialak eta Polizia Zientifikoak salatutako gertakarien ikerketa eta egiaztapenerako egin dituzten jardueren berri ematen duten beharrezko eginbideak bildu beharko ditu atestatuak.

Eginbide hauetan begizko ikuskapen tekniko-polizialen emaitzak jasoko dira eta baita gertakarien argiketara bideraturiko froga-bitarteko guztiak ere.

Begizko ikuskapenaren eginbideak, ahal den neurrian bederen, argazki edo bestelako bitarteko teknikoen (bideoa, eta abar) bidez dokumentatuko dira Agintaritza Judizialak gertakarien eta hauek inguratzen dituzten baldintzen balorazioa azkarrago egitea errazteko.

Eginbide hauen parte bezala, auzo-txosten bat garatu beharko da erabilgarri izan daitezkeen datu guztiak (esate baterako, gertakarien aurrekariak) jasotzeko. Zehazki, erasotzailea eta biktimaren arteko harremanen inguruko portaerari buruzkoak, lehenagoko erasoei buruzko informazioa eta gizartean duten bikote irudi publikoa, iturriak aipatuz (ez da beharrezkoa iturrion identifikazio pertsonala zehaztea).

11.- ATXILOKETA EGINBIDEA ETA ESKUBIDEEN INFORMAZIOA

Salatutako pertsona, ustezko erasotzailea, atxilotzen denean (bai delituzko ekintza baten erantzuleztat bera jotzen duten adierazle arrazionalengatik, bai urruntze neurri judiziala hausteagatik eta bai gertakarien baldintzek biktima arrisku

larrian egon daitekeela ondorioztatzeagatik) atxiloketa eta eskubideen informazioaren eginbidea burutuko da.

12.- ARMAK KONFISKATZEKO EGINBIDEA

Ustezko erasotzaileak eskura izan ditzakeen armak konfiskatzen direnean burutuko da eginbide hau, Agintaritzaren eskura jartzeko. Hala eta guztiz ere, gobernu Agintaritzari honen berri emango zaio, Armen Araudiaren babespeko baimen administratiboa baliogabetzeko aukerarik balego. Halaber, bere lana dela eta ustezko erasotzaileak armak erabili behar baditu, bai Segurtasun Indar eta Gorputzen kide delako edo bai Segurtasun Pribatuko esparruan lan egiten duelako, beronen superior jerarkikoari ustezko erasotzailearekin loturiko gertakarien berri emango zaio.

13.-USTEZKO ERASOTZAILEARI BURUZKO AURREKARIAK AURKEZTEKO EGINBIDEAK

Eginbide honetan datu base polizialean dauden aurrekari guztiak jasoko dira, eta modu berezian aipatuko dira genero indarkeriarekin zerikusia duten aurrekari guztiak.

Era berean, Justizia Ministerioaren Etxeko Indarkeriaren Erregistro Zentralean grabatutako informazio erabilgarria ere jasoko da; erasotzaileari edo biktimari buruzko informazioa, modu berezian aipatuz: aurrekari penalak eta lehenago babes aginduren baten edo urruntze aginduaren erabaki judizialen baten ondorio gisa hartu ahal izan diren neurriak.

14.-TOXTEN MEDIKU, PSIKOLOGIKO ETA SOZIALAK IGORTZEKO EGINBIDEA.

Biktimak jada laguntza-medikua jaso duenean, laguntza-mediku horretako txosten medikua erantsiko zaio atestatuari.

Gizarte zerbitzuek, emakumearentzako arreta zentroek, biktimarentzako arreta zentroek edo arreta psikologiko eta soziala eskaini duten bestelako unitate

administratiboek biktima eta haren inguru sozialarekin loturiko elkarrizketa, esplorazio eta ebaluazioak egiten badituzte, biktimak berak edota aipaturiko zerbitzuek emandako txosten sozial edo psikologikook igorri egingo dira.

15.-BIKTIMAREN BABESERAKO HARTUTAKO KAUTELA-NEURRIEN EGINBIDEA

Agintaritza judizialari biktima babesteko harturiko kautela-neurri polizialen berri emateko burutuko da eginbide hau; biktimarentzat arriskua dagoenean, eta Agintaritza judizialak dagokion erabakia eman bitartean, harturiko kautela-neurrien berri, alegia.

Biktimak bizilekua aldatzen baldin badu, Agintaritza Judizialari igorriko zaion eginbidea burutuko da, bizileku berriaren datuak barne dituelarik.

16.- ARRISKUAREN EBALUAZIORAKO EGINBIDEA

Biktimarentzat arrisku bereziren bat dagoenean, atestatuan ageri diren datu aipagarrienak kontuan izanik, Instruktoreak atestatuaren osagarri izango den eginbide bidez jaso ahal izango du arrisku berezi hori.

17.- ORGANO JUDIZIALERA ATESTATUA IGORTZEKO EGINBIDEA.

18.-ERANSTEN DIREN AGIRIAK

1. Biktimaren lesioen txosten medikua edota lesioen argazkiak.
2. Babes aginduaren eskaera orria.
3. Atxiloketa eta eskubideen informazioaren eginbidea (balego).
4. Gizarte-zerbitzuen, emakumearentzako arreta zentroen edota biktimarentzako arreta zerbitzuen txostenak, bai emakumeak berak ematen baditu eta bai aipaturiko zerbitzu edo zentroek ematen badituzte.
5. Atestatuaren gorputzean ageri ez den beste edozein eginbide.

II. ERANSKINA: BOTERE JUDIZIALEKO KONTSEILU OROKORRAREN APIRILAREN 27KO 1/2005 ARAUDI HITZARMENA, JOKABIDE JUDIZIALEN ALDERDI GEHIGARRIEN INGURUKO EKAINAREN 7KO 5/1995 ARAUDIA ALDATZEN DUENA (B.O.E. 109. zk., 2005eko maiatzaren 7koa)

ARRAZOIEN AZALPENA

Abenduaren 28ko Genero Indarkeriaren kontrako Babes-Neurri Integraleko 1/2004 Lege Organikoaren indarrean sartze hurbilak (beronen laugarren azken xedapenak BJKO-ri ematen dio, sei hilabeteko epean, guardiako zerbitzuak Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegi berrietara moldatzeko eta Polizia Judizialaren eta aipaturiko Epaitegien arteko koordinazioa garatzeko ahalmena), indarrean dagoen Jokabide Judizialen Alderdi Gehigarrien Araudiaren aginduak berehalakotasunez moldatzeari ekin beharra dakar; aipaturiko Jokabide Judizialen Alderdi Gehigarrien Araudiak guardia zerbitzua arautzen du eta, zehazki, zerbitzu horren zio diren funtzio eta jokabideak arautzen ditu, Epaitegien eta Polizia Judizialaren arteko koordinazioa arautzearekin batera.

Legearen 62. artikuluan ezartzen denaren arabera, guardia zerbitzuaren zio bezala hartzen da eta arautzen da (Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegiei egotziriko berehalako izaeradun eta atzeraezina den edozein jokabidez gain, eta aipaturiko Epaitegiok ezagutzen dituzten delituengatik atxiloturikoen egoera pertsonalaren erregulatzeaz gain) delituon biktima direnentzako babes agindua hartzeko eskariaren inguruko erabakia.

Legearen 54. artikuluan ageri diren koordinazio aurreikuspenak betetzea errazteko helburuarekin, Araudiko 47. artikulua aldatzea beharrezkoa da aipaturiko aurreikuspen legeletatik sorturiko beharrianetara moldatzeko.

Bere eginkizuna betez, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorraren Osoko Bilkurak, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 110.2 artikulua ematen dion eskumena erabiliz, eta Lege Organiko beraren 110.3 artikuluan aurreikusitako agerraldi tramitearen aurretik, 2005eko apirilaren 27ko batzarrean ondoko Hitzarmena onartu du:

1. artikulua.

Jokabide Judizialen Alderdi Gehigarrien inguruko ekainaren 7ko 5/1995 Araudiaren 40. eta 47. artikulua aldatzen dira, jarraian azaldu bezala idatzita geratzen direlarik:

40. artikulua.

“1. Guardia zerbitzuen zioa eratzen dute, euren kasuan: guardia zerbitzuaren denbora-tartean aurkezten diren atestatuei, salaketei eta kereilei dagozkien prozesuen harrerak eta abiarazteak, bidezkoak diren instrukzio kriminalen lehen eginbideak burutzeak, eta euron artean biktimaren babeserako kautela-neurriak, epailearen aurrera atxilotu gisa eroaten direnen egoera pertsonalaren inguruan dagozkien erabakiak hartzeak, Prozedura Kriminaleko Legean aurreikusitako faltengatiko berehalako epaiketak burutzeak, premiazko eginbideen tramitazioak eta Prozedura Kriminaleko Legearen IV. Liburuko III. Tituluak guardiako Epaileari egozten dion beste edozein jokabideren tramitazioak. Eta, halaber, Legeak Instrukzio Epaitegiei eta Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegiei egozten dien premiazko edo atzeraezinak diren beste edozein jokabide burutzeak ere guardia zerbitzuaren zioa eratuko du.

Jokabide guzti hauek premiazkozat joko dira Botere Judizialaren Lege Organikoaren 183. artikulua ezarritakoen arabera.

2. Egoera judizial bakoitzean, banaketarako arau orokorrek zehaztuko dute zein organo judiziali eman beharko zaion guardiako zerbitzuen bidez sartu diren aferen berri, eta unean-unean eginkizun horiek burutzen dituen Epaitegiari esleitu ahal izango zaio Instrukzio Epaitegien eskumenen barne dauden maila jakin batzuetako prozeduren tramitazioa eta ebazpena.

3. Era berean, guardia zerbitzuaren zioa eratuko du urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren (adingabekoen erantzukizun penala arautzen duena) aplikazio esparruaren barnean sartzen diren pertsonen inguruan kautela-neurriak hartzeak edo aipaturiko pertsonen oinarrizko eskubideak murrizten dituzten eginbideak burutzeak, euron beharra dagokion Adingabekoen Epaitegiaren audientzia

orduetatik kanpo sortzen denean, beti ere, aipaturiko Adingabekoen Epaitegiaren demarkazioan maila honetako organo juridikzionaleri dagokion guardia zerbitzurik ez balego. Horretarako, guardia zerbitzuaz arduratzen den Instrukzio Epaileak dagokion Adingabekoen Epailearen ordezkari izango du. Dagokion erabakia hartu ostean, guardiaren ardura duen Instrukzio Epaileak buruturiko jokabidea eskumena duen organora igorriko du eta, bere kasuan, organo horren eskura jarriko du dagokion adingabekoa.

4. Guardia zerbitzuaren zioa eratuko dute baita ere, Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegietan instruitu beharreko delituetan ustezko partaidetza izan duten atxilotuen egoera pertsonalaren erregulatzeak eta ustezko erasotzaileen biktimentzako harturiko babes aginduen ebazpenak, baldin eta aipaturiko eskaerok aurkezten badira eta atxilotuak aipaturiko Epaitegion audientzia orduetatik kanpo jarri badira epailearen eskura. Horretarako, guardia zerbitzuaz arduratzen den Instrukzio Epaileak dagokion Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epailearen ordezkari izango du. Dagokion erabakia hartu ostean, guardiaren ardura duen Instrukzio Epaileak buruturiko jokabidea eskumena duen organora igorriko du eta, bere kasuan, organo horren eskura jarriko du inputatua.

5. Zirkunskripzio judizial bakoitzean guardia zerbitzua burutzen duen Epaileak, ordezkari izan zezakeen berean, ezagutuko beharko ditu baita ere: Prozedura Zibileko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 70. artikulua Epaile Dekanoei egozten dizkien premiazko jokabideak, eta baita Erregistro Zibilari dagozkien jatorri bereko jokabideak eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikulua bosgarren ataleko bigarren paragrafoak Auzi-administratiboko Epaitegiei egozten dizkietenak ere, baldin eta jokabideak atzerazinak badira eta euren burutzea dagokien organoen audientzia orduetatik kanpo sortzen badira. Bidezkoa den esku-hartzea burutu ostean, buruturiko jokabidea eskumena duen organora edo, bere kasuan, banaketa bulegora bidaliko da.

6. Lehen Instantziako Epaitegien eta Instrukzio Epaitegien arteko bereizketa duten barruti judizialetan, eta lanaren tamainak horrela eskatzen duen kasuetan, dagokion Gobernu Aretoak, Epaileen Batzordea entzun ostean, atzerazinezko izaeradun jardueri (jurisdikzio zibilaren baitan edo Erregistro Zibilaren esparruan, egun eta ordu baliogabeetan sortzen direnei) arreta emateko zerbitzu berezi bat ezartzeko eskaera egin ahal izango dio Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrari.

7. Era berean, Epaileen Batzordeek prestazio jarraitua eskatzen duten gobernu izaeradun zerbitzu komunen ardura guardia zeregina betetzen duen Epaitegiaren ardurapean utz dezakete."

47. artikulua.

1. Guardia Epaitegien, Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegien eta Polizia Judizialaren arteko koordinazioa zitazioei dagokienean. Prozedura Kriminaleko Legearen 796, 799 bis eta 962 artikuluek ezartzen dutenaren arabera, Polizia Judizialak guardia Epaitegien aurrera eta Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegien aurrera eginiko zitazioetarako esleipena Zitazioen Agenda Programatuaren (ZAP) bitartez egingo da, eta beronek zehaztuko ditu aipaturiko Epaitegietan zitaziotarako libre dauden ordutegiak. Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegien kasuan, gordetzen diren ordutegiek soilik lanegunak eta audientzia orduak barne hartuko dituzte, zitazioa libre dagoen eta gertukoena den egunerako lotuko da, eta gertuko egun honek ez baldin badu ordurik libre, gertuen dagoen hurrengo egunerako lotuko da zitazioa.

Zitazioetarako ordua ematerakoan ondoko irizpideak izan behar dira kontuan:

I. Guardia zerbitzu bat baino gehiago balego edota Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegi bat baino gehiago balego Premiazko Eginbidea instruitu behar den zirkunskripzioan, indarrean dauden banaketa arauen arabera, eta Polizia Judizialaren Koordinaziorako Probintzia Batzordearen baitan onarturiko hitzarmenen arabera, dagokien guardia zerbitzuan edo Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegian burutuko dira zitazioak.

II. Atzerritarrak diren lekukoek eta euren herritik aldi baterako lekualdatu diren nazionalek lehentasuna izango dute aurrez ezarritako ordutegien esleipenean, aldeztu aurretik eraturako frogaren praktika errazteko helburuarekin, Prozedura Kriminaleko Legearen 797. artikuluko 2. atalean ezarritakoaren arabera.

2. Ahozko epaiketak jartzeko koordinazioa Guardia Epaitegien, Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegien, Zigor-arloko Epaitegien eta Probintzia Auzitegietako Fiskaltzaren artean.

Prozedura Kriminaleko Legearen 800.3 artikuluan aurreikusitakoen arabera, guardia arruntaren ardura duten Instrukzio Epaitegiek eta Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegiek prozedura azkarreko jardunbideen epaiketak burutzeko zuzenean emango dituzte epaiketa datak, baldin eta ez badute Prozedura Kriminaleko Legearen 801. artikuluan aurreikusitakoaren arabera sententziarik eman behar.

Genero Indarkeriaren kontrako Babes-Neurri Integraleko 1/2004 Lege Organikoaren 54.2 artikuluan ezarritakoen arabera, Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegiak ezagutu beharreko gertakariengatik atxilotutakoaren egoera pertsonalaren inguruan erabakia hartu behar duen guardia zerbitzuan dagoen Instrukzio Epaitegiak, aipatutako Epaitegiaren aurrera aurkezteko zitazioa egingo dio atxilotuari, Polizia Judizialak salaketa jarri duen pertsona eta lekukoak deitu dituen egun berean, baldin eta bere askatasuna dekretatzen bada. Atxilotua kartzelan balego, zehaztutako datarako Emakumearen kontrako Indarkeriarako Epaitegietarako lekualdatze agindua burutuko da dagozkion manamenduekin batera.

Prozedura azkarreko jardunbideen epaiketak burutzeko egun eta orduen esleipenak Hitzorduen Agenda Programatuaren arabera egingo dira.

Helburu horretarako, hitzordu-txanda bat ezarriko da Zigor-arloko Epaitegien artean Epaileen Batzordeak zehazturiko aldizkotasunarekin, eta Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Aretoak onartu beharko du berau, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrari beronen berri emanez.

Akordiorik lortzen ez baldin bada, izaera osagarriko ondoko arauak sartuko dira indarrean:

a.- Zigor-arloko bost Epaitegi baino gehiago dituzten demarkazioetan, astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko txanda ezarriko da guardiako Epaitegiek kausa hauetako ahozko epaiketarako hitzorduak hartzeko, eta horretarako euren Agenda

osoa gordeko dute Zigor-arloko Epaitegi batek edo bik. Prozedura Kriminaleko Legearen 800.3 artikulua arabera, guardiako Epaitegiek jarriko hitzordua defentsaren idatziaren aurkezpen epearen ostean gertuen geratzen den egunean izan beharko da, idatzia ez baldin bada momentuan edo ahoz aurkeztu. Prozedura hauengatik eginiko gehiengo hitzordu kopurua hamabostekoa izango da, eta ondorioz, kopuru hau betetzen den unetik aurrera, libre dagoen hurrengo txanda egunean egin beharko da hitzordua.

b.- Zigor-arloko Epaitegi bat baino gehiago eta sei baino gutxiago dituzten demarkazioetan, asteroko hitzordu txanda ezarriko da, eta Zigor-arloko Epaitegi batek bere astelehenetik ostiralera arteko Agenda gordeko du demarkazioko guardia Epaitegiek premiazko prozedura jardunbide berriaren ahozko epaiketarako hitzorduak zuzenean jar ditzaten. Asteroko txanda honen barruan, asteko lehen egun librerako jarriko dira hitzorduak. Gehiengo kopurua hamabost hitzordukoa izango da, eta kasu horretan, asteko hurrengo egun librean jarriko beharko litzateke hitzordua, eta horrelaxe, hurrenez hurren.

c.- Zigor-arloko Epaitegi bakarra duten demarkazioetan, epaitegi horrek astelehen eta ostiral arteko egun bat edo bi gordeko ditu bere Agendan, guardia Epaitegiek premiazko prozedura jardunbide berriaren ahozko epaiketarako hitzorduak zuzenean jar ditzaten.

3. Faltengatiko epaiketen inguruko banaketa arauak eta berauen hitzordua jartzeko Instrukzio Epaitegien arteko koordinazioa. Instrukzio Epaitegi bat baino gehiago duten barruti judizialetan, Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Aretoak, Epailen Batzordeen proposamenez, Epaitegi hauen banaketa arauak moldatuko dituzte, guardia arrunteko zerbitzuan zehar sartu den atestatu edo salaketaren falten berri izatea guardiako Epaitegien eskumena izateko helburuarekin.

Prozedura Kriminaleko Legearen 965.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, guardia zerbitzu arruntean daude Instrukzio Epaitegiek, prozedura hori beraiei ez dagokielako, barruti bereko beste Instrukzio Epaitegien aurrean faltengatiko epaiketarako hitzordu bat zuzenean jarri behar baldin badute, aipaturiko hitzordua lanegunetan eta audientzia orduetan jarriko da, Instrukzio Epaitegiek aurrez zehazturikoen arabera gertuen geratzen den egunean.

4. Lankidetza protokoloak.

Xedatutakoaren eraginkortasuna bermatze aldera, ondoko Atalburuan Polizia Judizialaren Probintzia Batzordeen probintzia esparruko lankidetza protokoloak ezarriko dira. Halaber, barruti judizial bakoitzaren esparruan, Polizia Judizialaren, Fiskaltzaren eta Epaille Dekanoak ordezkaturiko dagokien Epailen Batzordeen arteko lankidetza protokolo espezifikoak ezarri ahal izango dira; lankidetza esparru hauetan Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargo Profesionalek, Justizia Ministerioak eta Komunitate Autonomoek ere parte hartzeko aukera zabalduz. Azkenik, Komunitate Autonomoaren esparruko protokoloak ezarri ahal izango dira, ordezkapen bera osatzen duten Organoak eratzeko aukerarekin.

Dagokion Gobernu Aretoak burutu beharreko bista hitzorduetarako irizpideen ezarpenaren aurretik Polizia Judizialaren Probintzia Batzordeak entzunak izango dira, eta lurraldeko organo judizialek jarritako hitzorduen eta Gobernu Aretoak ezarritako irizpideen artean izandako jazoera eta bat ez etortzeen berri emango zaio.

5. Epaiketa Azkarren Batzorde Misto.

Komunitate Autonomo bakoitzaren esparruan Epaiketa Azkarren segimendurako Batzorde Misto bat eratuko da. Ondoko kideek osatuko dute batzordea: Justizia Auzitegi Nagusiko Presidenteak (Gobernu Aretoaren ordezkapenean), Justizia Ministerioko ordezkari batek, Komunitate Autonomoko ordezkari batek, Fiskaltzako ordezkari batek, Abokatuen Elkargoko ordezkari batek eta Prokuradoreen Elkargoko ordezkari batek.

Batzorde honek organo judizialak emandako datuak (tramitatutako prozedura kopurua, burututako epaiketa azkarren kopurua, eurok burutzeko epeak, zigor kopurua eta euron arrazoak) bildu eta aztertuko ditu, eta, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, duen informazioaren berri emango dio aldiro Botere Judizialeko Kontseilu Orokorrari.

6. Gobernu-neurri osagarriak.

Gobernu Aretoek eta Epailen Batzordeek, dagozkien ohiko eskuduntzak erabiliz eta Araudi honetako baldintzen arabera, ondoko esparruetan egoki iruditzen zaizkien arau osagarriak onar ditzakete: aferen banaketan, barne erregimenean, ordezkapen koadroan edo beraien eskumeneko beste edozein arlotan.

2. artikulua.

Era berean, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorraren 1995eko ekainaren 7ko Hitzarmenaren 2.2 artikuluan ezarritakoaren arabera (Hitzarmen honetan *I. Eranskin* gisa gehitua) onartutako arau berrien edo aurrekoen moldaketen ondorioz eratutako indarrean dauden Araudien eguneraketa koadroa Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratzea xedatzen da.

Azken xedapena.

Arau-Hitzarmen hau Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu osteko egunean sartuko da indarrean.

Madriren, bi mila eta laugarren urteko apirilaren hogeita zazpian.– Botere Judizialeko Kontseilu Orokorreko Presidentea, FRANCISCO JOSÉ HERNANDO SANTIAGO.-